LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA

KARATULA

MUNITIBARREKO BASOBERRITZE PROIEKTU PILOTUA

1. EZAUGARRIAK

Espediente zenbakia	B960-2026-00002
Kontratazio organoa	Lea Ibarra Mankomunazgoa
Prozedura	Irekia
Kontratu mota	Zerbitzuak
Izapidetza	Arrunta
Loteak	Ez

2. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea Lea Ibarreko Mankomunitatearen MITECOren Planaren baitan, 2025/2026rako ezarritako baso lanak egiteko zerbitzua ematea izango da, espedientean jasotako baldintza teknikoen agiriaren arabera. Baldintza teknikoen agiriak eta administrazio klausulen agiriak kontratu izaera dute, eta, beraz, esleipenduna ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko sinadura beharko da.

3. EGIN BEHARREKO LANAK

Aldez aurreko ekintza fasean, sastrakak moztuko dira eta mozketaren hondakinak multzotan pilatuko dira, betiere, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren iritziz, distantzia nahikoa utzita multzoen artean, kendu behar den sastraka eta mozketa hondakinak kontuan hartuta.

Pilaketak ez dira inolaz ere egingo erreken gainean. Aldez aurretik aprobetxatu ez diren espezie autoktonoen zuhaiztiak eta zuhaitzak errespetatuko dira. Halen inguruan leku nahikoa utziko da landatu gabe zuhaitzak bizirauteko. Salbuespen gisa oin isolaturen bat moztu behar bada, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak berariaz adieraziko du.

Berdin jokatuko da oin horietakoren bat inausi behar denean, landaketaren iraupena ziurtatzeko.

325. partzelan pinu landaketa bat egon zen (QB Intsinis pinua), eta, orain, sastraka-birsorkuntza natural bat egon da, 2024an mozketa bat egin ondoren. Lurzati horri dagozkion lanak honako hauek dira:

- Belar sastrakak erabat garbitzea
- Espezie autoktonoekin birlandaketa bat egitea

Helburua, estaldura jarraituko baso baten landaketa eta horren datozen urteetako kudeaketa burutzea da. Bere esplotazioa zein izango den ere definitu behar delarik.

4. LIZITAZIO AURREKONTUA

Lizitazioaren derrigorrezko aurrekontua (BEZa barne)	20.000,00 € (%21eko BEZa barne)
Lizitazioko derrigorrezko aurrekontuaren xedapena	16.528,92 € + 3.471,08 € (Oinarria + BEZ)

5. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZ-a KANPOAN)

Zenbatekoa: 16.528,92 €

6. FINANTZAKETA

%100ean MITECOren diru laguntzaz finantzatuta dago.

7. BETETZE IRAUPENA

Kontratua gauzatzeko gehieneko epea 4 aste natural izango dira.

8. LUZAPENA

Ez

9. ORDAINTZEKO ERA

Kontratistak eskubidea du benetan exekutatzen dituen lanak ordain dakizkion, hitzartutako prezioen arabera, egindako kontratuari, onartutako aldaketei eta Administrazioak emandako jarraibideei jarraituz.

Ordainketa mankomunitateko teknikariak emandako adostasun txostena jaso ondoren egingo da eta espedientearen sustatzailea den LEA IBARREKO MANKOMUNITATEAren adostasunarekin, dagozkion fakturak aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du fakturak egiteko eta bidaltzeko.

10. KONTRATUAREN ZERBITZU SUSTATZAILEA ETA ARDURADUNA

Zerbitzu sustatzailea eta arduraduna: Lea Ibarreko Mankomunitatea.

Elexalde Eguen, 3, 48289 – GIZABURUAGA

idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

11. GAUZATZEKO LEKUA

MUNITIBARreko 6. poligonoko 325. partzela, non 3,75 ha izango dituen.

12. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratazio organoaren kontratatzailearen profilera sartzeko, Lea Ibarreko Mankomunitatearen web-orria erabili behar da: www.leaibarra.eus

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak honako hauek dira, gehienez 100 puntuko oinarriik abiatuta:

A. BALIO-JUDIZIOAREN MENPEKO IRIZPIDEAK (20 puntu)

a.1) Jarduketa-programa eta lan-metodologia (20 puntu):

Puntu honetan memoria teknikoa baloratuko da, honako azpi-irizpide hauen arabera baloratuko da:

- Jarduketa eta lursailaren ezaugarrien ulermena: 5 puntu.
- Lan-metodologiaren egokitasuna eta koherentzia: 8 puntu.
- Lanen antolaketa, plangintza eta baliabideen egokitasuna: 4 puntu.
- Ingurumen-arriskuen prebentzioa eta babes-neurriak: 3 puntu.

B. AUTOMATIKO KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (80 puntu)

b.1) Eskaintza ekonomikoa (60 puntu)

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa lizitatzaile bakoitzak lizitazio tasarekiko duen bajaren proportzioan egingo da, eskaintzarik txikienari 60 puntu ematen dizkion formula honen arabera:

$$P_i = \mathrm{P}_{\max} \cdot \frac{P_0 - O_i}{P_0 - M_o}$$

non,

P_i: *eskaintzagatik lortutako puntuazioa.*
$\mathrm{P_{max}}$: *irizpide honekin eman beharreko puntuazio maximoa* $(60\ pt)$
P_0: *lizitazioaren prezioa.*
O_i: *egindako eskaintzaren prezioa*
M_o: *egindako eskaintzarik onena*

Eskaintza baliodun guztiek P0 prezioa badute, eskaintza guztiek 60 puntu lortuko dituzte.

b.2) Epe murriztea (10 puntu):

Gehienezko gauzatze epea 4 aste naturalekoa da, hau da, 28 egun naturalekoa, kontratua formalizatu ondoren. Epe hori murrizten den egun natural bakoitzeko puntu 1 emango da, gehienez 10 puntura arte.

Eskaintzan proposatutako epea argi eta garbi adierazi beharko da egun naturaletan.

b.3) Enpresak euskara titulazioa izatea (10 puntu.):

- Frogatu daitekeen euskara titulazioren bat izatea eta euskara jakintza frogatu ahal izatea, Bikain edo Bai Euskarari antzeko titulazioarekin